AYTO. de ESTERIBAR
ESTERIBARKO UDALA

Maria Matilde Añon Beamonte (1 de 1)
Alcaldesa
Fecha Firma: 28/02/2020
HASH: 7999781106l3f51c277994c6cddc5e18

# EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

## 2020

Esteribarko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara ikasteko laguntzak emanen dizkie udalerrian erroldutako bizilagunei ondoko baldintzak betetzen badira.

## ARAUAK

**1. XEDEA**

Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua finantzatzea, herritarrek bertako hizkuntza gutxitua ikasteko eskubidea bermatze aldera. Diru-laguntzak 2020. urteko aurrekontuko 3350 48200 diru-sailaren kontura ordainduko dira. Xede honetarako, gehienez ere, 4.000 euro erabiliko dira.

**2. DIRU LAGUNTZAREN GAIAK.**

Diruz lagunduko dira 2019ko urriaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra egindako matrikula gastuak. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta autoikaskuntzakoak.

**3. ONURADUNAK.**

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskuratu ahal izanen dituzte diru laguntzak:

a. 16 urtetik gorako izatea.
b. Esteribarren erroldatua izatea.
c. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia maila deialdi honen 4. oinarrian azaldutakoaren araberakoa izatea. Ez dira kontuan hartuko gaixotasunen, mediku kontsulten edo lan arrazoiengatik behar bezala justifikatutako huts egiteak.
d. Ikastaroaren aprobetxamendu egokia egiaztatzea.

**4. DIRULAGUNTZAREN EZAUGARRIAK ETA ZENBATEKOA**

Dirulaguntza ikastaroan izandako asistentzia mailaren araberakoa izanen da, eta gehienez ere ikastaroko matrikula gastua osoaren adinakoa.

# CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE DE EUSKERA

## 2020

El Ayuntamiento de Esteribar, a través del Servicio de Euskera, concederá ayudas económicas a los habitantes de Esteribar conforme a las siguientes :

## BASES

**1.OBJETO**

Las becas que regula esta convocatoria tienen por objeto financiar, los gastos que origina el aprendizaje de euskera como lengua minorizada. Estas ayudas se abonarán con cargo a la partida presupuestaria 3350 48200 del año 2020. Se destinará a este objetivo un máximo de 4.000 euros

**2.OBJETO DE LA SUBVENCIÓN.**

Se subvencionarán los gastos de matrícula para cursos realizados del 1 de octubre de 2019 al 31 de agosto de 2020.
Se subvencionarán cursos tanto extensivos, como intensivos, internados y de autoaprendizaje.

**3. PERSONAS BENEFICIARIAS.**

Podrán solicitar beca para estudiar euskera las personas que reúnan las siguientes condiciones:

a. Ser mayor de 16 años
b. Estar empadronado en Esteribar.
c. La asistencia a los cursos subvencionados deberá ser la señalada en la base 4. de esta convocatoria. No se contabilizarán las faltas de asistencia debidamente justificadas por enfermedad, consultas médicas o asuntos laborables.
d. Certificar el aprovechamiento adecuado del curso subvencionado.

**4.CARACTERÍSTICAS Y CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN.**

La subvención se otorgará según el porcentaje de asistencia a los cursos. La subvención máxima será el coste total del curso.

- Se subvencionará el coste total del curso si la asistencia al mismo es superior al %85.

Cód. Validación: AJJCFRQA9QD7QNYCE6TNYMZAW | Verificación: https://esteribar.sedelectronica.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 3

- Dirulaguntza matrikularen kostu osoaren adinakoa izanen da ikastaroan izandako asistentzia %85etik gorakoa denean.
- Diru laguntza matrikularen kostuaren %75 izanen da ikastaroan izandako asistentzia %70 eta %75 bitartekoa denean.
- Ez da dirulaguntzarik jasoko izandako asistentzia %70etik beherakoa denean.

Edonola ere, deialdi bakoitzean ikasleak ez du 600 euro baino gehiago jasoko.

**5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA EPEA.**
Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Orreaga etorb. 13, Zubiri) **2020ko ekainaren 22tik abuztuaren 31a.**
Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraitua.
b) Ikastaroa antolatu duen entitatearen egiaztagiria, ikastaroaren ezaugarriak zehaztuko dituena: maila, ordu kopurua, kostua eta asistentzia portzentajea.
c) Matrikularen ordainagiria.
d) Helburu honetarako administrazio publiko edo pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztien egiaztagiriak.

6.**AURKEZTU DOKUMENTAZIOAN EGINDAKO OKERRAK ZUZENTZEA.** Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, 10 egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez baditu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

**7. EBAZPENA.** Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko erabakia Esteribarko Alkateak hartuko du, Euskara Zerbitzuaren irizpena ikusita. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

**8.DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA.** Dirulaguntzak batera ordainduko dira behin ebatzita.

- Se subvencionará el 75% del coste del curso si la asistencia al mismo es entre el 70% y el 75%.
- No se recibirá ninguna subvención si la asistencia es inferior al 70%.

En cualquier caso, la beca que recibirá el alumno/a-solicitante será de un importe máximo de 600€ en cada convocatoria.

**5.DOCUMENTACION A PRESENTAR.PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACION DE SOLICITUDES**.

Las solicitudes se presentarán en el Registro del Ayuntamiento **del 22 de junio al 31 de agosto de 2020.**
El plazo será improrrogable y no se admitirán solicitudes fuera del mismo.

Documentación a presentar:

a) Solicitud debidamente cumplimentada según el modelo adjuntado a esta convocatoria.
b) Certificado de la entidad organizadora del curso en el que se detallarán las condiciones del mismo: nivel, número de horas, costo y porcentaje de asistencia.
c) Justificante del pago de matrícula.
d) Declaración de todas las subvenciones solicitadas a administraciones públicas o entidades privadas, o concedidas por ellas para este objeto.

**6.SUBSANACIÓN DE ERRORES EN LA SOLICITUD PRESENTADA.**
Si se advirtiera en la documentación presentada por la persona solicitante la existencia de algún error o que la misma está incompleta, se le concederá un plazo de 10 días para que complete dicha documentación. Si el plazo trascurriera sin que el solicitante procediera a la subsanación, se entenderá que se ha desistido de seguir adelante con la solicitud.

**7.RESOLUCIÓN.** La concesión de las subvenciones se realizará por resolución de alcaldía, previo informe del Servicio de Euskera municipal. La resolución se comunicará a las personas solicitantes.

Cód. Validación: AJJCFRQA9QD7QNYCE6TNYMZAW | Verificación: https://esteribar.sedelectronica.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 3

**9.BATERAGARRITASUNA.** Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain finantzaketarik gertatzen ez bada.

**10. DATUEN BABESA.** Dirulaguntza hauek eskatzen dituztenek baimena ematen diote Esteribarko Udalari deialdian finkatu diren xedeak bete daitezen beharrezkoak diren datu pertsonalak eska ditzan.
Datu Pertsonalak babesteko apirilaren 27ko 2016/679 EB DBEOri jarraiki, jakinarazten dizugu Esteribarko Udalak, deialdi honetan parte hartzeko biltzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduradun moduan, soilik hauekin erlazionatutako izapideetarako erabiliko dituela, bitartekariei lagatzea aurreikusirik ez dagoelarik, betebehar legala salbu. Halaber, Esteribarko Udaletxeko Erregistro Orokorrera (Orreaga etorb. 13, Zubiri) zuzenduz gauzatu dezakezun irispiderako, zuzenketarako, ezerezteko eta aurkaritzako eskubidea jakinarazten dizugu.

**11. ERREKURTSOAK.** Oinarri hauen aurka, baita horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Epaitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Esteribar, 28 de febrero de 2020

LA ALCALDESA / ALKATEA
Mª Matilde Añón Beamonte

**8. PAGO DE LA SUBVENCIÓN.** Las subvenciones se abonarán de una sola vez, una vez adoptada la resolución de concesión.

**9.COMPATIBILIDAD.** Las subvenciones establecidas en esta convocatoria son compatibles con las concedidas para el mismo objetivo por otras entidades públicas o privadas, siempre y cuando no haya sobrefinanciación.

**10. PROTECCIÓN DE DATOS.** Los solicitantes de estas ayudas autorizan al Ayuntamiento de Esteribar a recabar los datos personales necesarios para que se cumplan los objetivos establecidos en la convocatoria.
A tenor del RGPD UE 2016/679, de 27 de abril, le informamos que el Ayuntamiento de Esteribar como responsable del tratamiento de los datos de carácter personal que se recaban para acceder a esta convocatoria, efectuará el tratamiento de los mismos únicamente para los diferentes trámites relacionados con la misma, no estando prevista la cesión de datos a terceros, salvo obligación legal. Así mismo, le informamos de su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición, que podrá ejercitar dirigiéndose al Registro General del Ayuntamiento de Esteribar (Avda. Roncesvalles 13, Zubiri)

**11.RECURSOS**. Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- Recurso de Reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso Contencioso Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

Esteribarren, 2020ko otsailaren 28a

Cód. Validación: AJJCFRQA9QD7QNYCE6TNYMZAW | Verificación: https://esteribar.sedelectronica.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 3 de 3